


ttüpi-ttapa

1995ko otsailak 2 • 151. zenbakia

Erreportaia

**DIRULAGUNTZAK
ARTISAU JANARIGILEENTZAT**



**SAGARDOTEGIEN
GARAIA HASI DA**

Lekuz aldatu gara

Zure beharrak modu eroso batez betetzeko, orain lokal haundiago batera aldatu gara.

Helbide berria...

Iturlandeta karrika, 1 • ☎ 63 10 91 • BERA



- ☞ KONPONKETAK (TB, VCR, HI-FI, Elektrogailuak)
- ☞ ANTENAK
- ☞ AUTOENDAKO IRRATIAK
- ☞ TELEFONOAK

Gida 95

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO eta LANTEGI guztien

Gida Komertziala

orain, **ttipi-ttapa** argitaratua

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

ttipi-ttapa

DATUAK

❖ Goizuetako karreteraren egoera desastrosa dela eta, arrenkura karta bidali du berriki zenbait egunkaritarara.

❖ Antonio 20 urtez izana da Goizuetako alkate; 1959tik 1979ra.

❖ Hortaz, ongi daki zer den udaletxean barnetik lanean aritzea, eta ez zaio batere gustatzen gauzak nola diren jakin gabe, kanpotik kritikak egitea.

❖ Azken 16 urtetan Leitzako Sarrion aritua da lanean.

❖ Gaur egun jubilatua dago eta gogotsu ageri da bere esku egon litekeenean laguntzeko.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
XABIER MIKEL UITZI

Antonio APEZETXEA:

«Badira 20 urte Goizueta-Hernani bidea zolaberritu zutela»

EURITEEN ONDORIOZ, HERNANI ALDERAKO BIDEAN BERRIZ ERE KARRETERA PUSKA BAT ERORI ETA BEREZ GAIZKI ZEGOENA ORAINDIK OKERRAGO GELDITU DA EGUNEROKO LANA DELA ETA, JOAN ETORRIAN IBILI BEHAR DUEN GOIZUETARRARENTZAT. ZENBATSU IBILTZEN DIRA EGUNERO GOIZUETATIK HERNANI EDO LEITZA ALDERA?


Gutxi gora behera 60 lagun bai. Leitzara autobusa ibiltzen da bainan gehienak Hernani aldera eta koxe partikularretan.

ZENBAT URTE PASATU DIRA BIDE HORI AZKEN ALDIZ ZOLABERRITU ZUTENETIK?

Hernanikoa berritu zutenetik 20 urte pasatu izanen dira. Leitza aldekoa geroztik berritua da, duela 16 urte edo...

BEHIN MIGUEL LEKUONA ALKATEAK ESAN ZIGUNEZ, NAFARROAKO GOBERNUARENTZAT BA OMEN DAUDE LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO HERRIAK. ZUK ZER USTE DUZU?

Nolanahi dela ere,



ikusten da honara ez dela dirurik heldu. Duela 5 urte, lehengo udalarekin, hemen diru asko inbertitu zen, bainan azkeneko lejislatura honetan ez du te batere dirurik eman.

UDALAREN KOLOREAK BA OTE DU ZER IKUSIRIK?

Ez dakit... batek ho-

rren sospetxa izaten ahal du bainan ezin liteke esan... Alkateak badaki Goizueta eta herri gehiago ere gelditu zirela Hirurteko Plan horretatik kanpo. Lastima da 4 urtetan sosik ez ematea ezer ez egiteko.

DENA DEN, KARRETERA MOLDATZEA BAKARRIK GOBERNUAREN ESKU DAGO ETA BADIRUDI GOIZUETA NAHIKO BAZTERTUA DAGOELA...

Bai, oso baztertua. **ZU 20 URTEZ AL-**


KATE IZANA ZARA. GARAI HAIETAN NOLA ZIREN KONTUAK?

Satisfakzio handia izan nuen orduko Diputazioarekin, atentzio handia izaten baitzuten. Garai hartan ez zen orainbeste diru ateratzen Diputaziotik herrietara. Orain diru asko ateratzen da generalean. Nolanahi ere, Goizuetan adibidez, udalaren aberastasuna menditik heldu da eta kuidatzen segitu behar da, segi plantatzen, herri ttikien iturria baita.

► *«Alkateak badaki Goizueta eta herri gehiago ere gelditu zirela Hirurteko Plan horretatik kanpo. Lastima da Nafarroako Gobernuak 4 urtetan sosik ez ematea ezer ez egiteko.»*

ARTISAU JANARIGILEENTZAT DIRULAGUNTZAK

Gazta, eztia, patea, sagardoa, kontserbak eta gisako elikagaiak etxean egin eta saltzeko ateratzen dituzten artisaentzat dirulaguntza bereziak onartu berri ditu Nafarroako Gobernuak. Dirulaguntza horietara biltzeko, nahitaezko baldintza da produktore bezala dagokion erregistroan sartua egotea, eta baldintza hori betetzen baldin bada, dirulaguntza horiei esker, formazio ikastaroak, tekniko espazializatuaren kontratazioa edo inbertsio berriak burutu ahal izanen dituzte janarigile hauek. Baldintza betetzen ez dutenak, ordea, baztertuak geldituko dira.



DIRULAGUNTZA HAUEK ETATIK KANPO ETA BAZTERRERA GELDITUKO DIRA, SANIDADE ALDETIK DAUDEN BETEBEHARRERATARA EZIN EGOKITUZ DABILTZAN PRODUKTORETTIKIAK. SANIDADE ALDETIK DAUDEN BALDINTZAK BERDINAK DIRA DENENTZAT, EDOZEIN DELA JANARIGILEAK DUEN ENPRESAREN TAMAINA.

baserrietako 'diru-iturriak dibertsifikatzeko baliagarri' izanen delakoan, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bereziak onartu berri ditu baserrietan dauden gaiekin jan-garriren bat prestatu eta saldu nahi duten baserriarrentzat.

Zehatzagoak izateko eta Nafarroako Gobernuak prestatua duen 1995eko Aurrekontu Orokorraren arabera, bi diru partida daude artisaumoduan egiten den janarigileentzat diruz laguntzeko. Alde batetik 30 milioi pezetako dirutza dago aktibo finkoetan egin nahi diren inbertsioetarako. Kontzeptu honetan sartzen dira, errate baterako, instalazioak egitea

eta hornitzea; makinaria eta beharrezkoak diren ekipoen erostea; produktuaren izena eta marka patentatzea eta inbertsio hauei dagokien proiektu, kontsulta eta bideragarritasun ikerketetan egiten diren inbertsioak subentzionatzea. Hori bai, dirulaguntza hauek subentzionagarriak diren inbertsioen %30a bitartekoak izanen dira, gehienez ere, Bor-

tzirietan. Baztan, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan dauden baserriarrek, berriz, dirulaguntza haundiagoa izanen dute '5b eremuan' egoiteagatik, inbertsioen %35a bitartekoa, hain zuzen ere. Dena dela, dirulaguntzetara biltzeko, gutienez, 3 milioi pezetako inbertsioa egin beharko du interesatuak.

Honeraino aktibo finkoetan egin nahi diren inbertsioei dagozkien xehetasunak, eta hasieran erran bezala, 30 milioi pezetako dirutza duen partida. Bigarren diru multzoa 5 milioi pezetakoa da, eta dirutza horretatik, tekniko espezializatuen kontratazioarako egin nahi diren inbertsioak subentzionatuko dira.

ERREGISTRATUA EGOTEA NAHITAEZKO BALDINTZA
Dirulaguntza hauek eskatu ahal izateko, janarigile bakoitzak produktore bezala erregistratua egon behar du berari dagokion erregistroan. Nahitaezko baldintza da hori. Baina zer egin behar da horretarako?

Erregistroan sartzeko eta behar den agiria eskuratzeko, interesatuak janari manipulazilearen karneta ateratu behar du, lan horretan hiru urteko esperientzia edo ikastaroren bat eginga baldin badu urte bateko esperientzia baduela frogatu, eta berak produktzioan zuzenki lan egiten duela frogatu.

Gauzak horrela, badirudi dirubide honek, baserriko bertze lanen ondoan, nolabaiteko espezializazioa eskatzen duela, eta baita inbertsio koxkorra egitea ere.

JANARIGILE PARTIKULARRAK ETA ARTISAU JANARIGILEEN ELKARTEAK

Azaroan presentatu zen Iruñean momentuz Nafarroa mailan bakarra den Artisan Janarigileen Elkarteak. Bere baitan bilduak daude Nafarroa osoko 15 familia edo enpresa ttiki, horietatik 3 inguru honetakoak (Sunbillako Lizun gaztandegia, Berako

«Aunitz dira erregulatu gabe gelditu diren artisauak»

■ **Nola baloratzen du EHNEk dirulaguntza bide hau?**

□ Bertako produktuak egitera dedikatzen diren baserri eta artisauen egoera erregulatzeko positiboa da. Baina gure ustez, Nafarroako Gobernuak egiten ahal zuen gauzarik erraxena egin du inizatiba honekin: jada funtzionatzen ari diren enpresen egoera legalizatzea eta diruz laguntzea, eta erregulatu gabe utzi du edozein baserri maila ttikiagoan egiten den produktio artizanala. Kontu honekin, artisau janarigilea nolabait enpresa bat bihurtze

bilatzen da, erregulazio tekniko-sanitario zorrotza beteko duen enpresa. Alde hortatik, Gobernuak gauza berbera eskatzen dio Iparlat edo Danoneri, eta gasnategi ttiki bati. Gainera, dirulaguntza hoietara biltzeak inbertsio dextente egitea eskatzen du, eta aktibitate bezala produktzioan espezializatzea, eta guzi horrek, nolabait, artisauaren kontzeptua bera desbirtuatu egiten du.

■ **Arisau-janarigile kontzeptupean jende aunitz sartuko da ezta?**

□ Nafarroako Gobernuak kontseilariak aipatzen zi-



Lourdes INDABURU

EHNE sindikatuko albaitea

gunez, Nafarroako mendialde osoan bederen 1.500 artisau sartzeko ahal dira; ogia egiten dutenetik hasi eta pattarra egileetara. Pentsa zein zabala izaten ahal den!



ten joanen da laguntza (kostearen %75tik %10a bitarte).

Merkatu ikerketa, marka komertzialen diseinua eta erregistroa eta promozio kanpainak ere subentziona-garriak dira. Eta horretaz aparte janarigile hauek feria batera joan nahi badute, dirulaguntza bereziak eskatu ahal izanen dituzte (egonaldi gastuen %70a bitartekoak).

Orain arte aipatutako dirulaguntza guzi hauek janarigile elkarteendako dira, baina janarigile partikularrek ere, bildu ahal izanen dira prestakuntza eta enpresaritze mailako ikastaroak burutzeko emanen diren dirulaguntzetara.

Kasu hauetan, ikastaro horien kostea oso-osorik ordainduko luke Nafarroako Gobernuak. ■

Errotazar ahatekiak eta Lekarozko Larraldea sagardogilea). Nolanahi dela ere, Nafarroako Gobernuak badu aurrikusia dirulaguntza berezirik elkarteendako ere, batez ere, enpresak kudeatu eta gobernatzen esperientzia duten profesionalak kontratatuzko.


NAFARROAKO GOBERNUAREN INIZIATIBA HONEKIN, FUNTZIONATZEN ARI DIREN ENPRESEN EGOERA LEGALIZATUKO DA, NAHIZ ETA BERTZE ARTISAU BATZUREN EGOERA ERREGULATU GABE GELDITUKO DEN.

Bertzalde, elkar- teek ekonomia, teknika edo enpresa mailan aholkulariren baten zerbitzuak kontratatu nahi izanen balute, elkar- teak osatu eta

lehenbiziko 5 urtetan dirulaguntzak eskatu ahal izanen dira, eta kasu honetan ere, urteak pasatu ahala murriz-

ARTISAU JANARIGILEENTZAT DIRULAGUNTZAK

**Gazta, ezti,
patea, sagardoa,
kontserbak eta
gisako elikagaiak
etxean egin eta
saltzeko ateratzen
dituzten
artisaentzat
dirulaguntza
bereziak onartu
berri ditu
Nafarroako
Gobernuak.
Dirulaguntza
horietara biltzeko,
nahitaezko
baldintza da
produktore bezala
dagokion
erregistroan
sartua egotea, eta
baldintza hori
betetzen baldin
bada,
dirulaguntza
horiei esker,
formazio
ikastaroak,
tekniko
espazializatu
kontratazioa edo
inbertsio berriak
burutu ahal izanen
dituzte janarigile
hauek.
Baldintza betetzen
ez dutenak,
ordea, baztertuak
geldituko dira.**



DIRULAGUNTZA HAUEK KANPO ETA BAZTERRETA GELDITUKO DIRA, SANIDADE ALDETIK DAUDEN BETEBEHARRERATARA EZIN EGOKITUZ DABILTZAN PRODUKTORETTIKIAK. SANIDADE ALDETIK DAUDEN BALDINTZAK BERDINAK DIRA DENENTZAT, EDOZEIN DELA JANARIGILEAK DUEN ENPRESAREN TAMAINA.

baserrietako 'diru-iturriak dibertsifikatzeko baliagarri' izanen delakoan, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bereziak onartu berri ditu baserrietan dauden gaiekin jan-garriren bat prestatu eta saldu nahi duten baserri-errentzat.

Zehatzagoak izateko eta Nafarroako Gobernuak prestatua duen 1995eko Aurrekontu Orokorraren arabera, bi diru partida daude artisaumoduan egiten den janarigintza diruz laguntzeko. Alde batetik 30 milioi pezetako dirutza dago aktibo finkoetan egin nahi diren inbertsioetarako. Kontzeptu honetan sartzen dira, errate baterako, instalazioak egitea

eta hornitzea; makinaria eta beharrezkoak diren ekipok erostea; produktuaren izena eta marka patentatzea eta inbertsio hauei dagokien proiektu, kontsulta eta bideragarritasun ikerketetan egiten diren inbertsioak subentzionatzea. Hori bai, dirulaguntza hauek subentzionagarriak diren inbertsioen %30a bitartekoak izanen dira, gehienez ere, Bor-

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK:
ARTXIBOA

tzirietan. Baztan, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan dauden baserritarrek, berriz, dirulaguntza haundiagoa izanen dute '5b eremuan' ego-teagatik, inbertsioen %35a bitartekoa, hain zuzen ere. Dena dela, dirulaguntzetara biltzeko, gutienez, 3 milioi pezetako inbertsioa egin beharko du interesatuak.

Honeraino aktibo finkoetan egin nahi diren inbertsioei dagozkien xehetasunak, eta hasieran erran bezala, 30 milioi pezetako dirutza duen partida. Bigarren diru multzoa 5 milioi pezetakoa da, eta dirutza horretatik, tekniko espezializatuen kontratazioarako egin nahi diren inbertsioak subentzionatuko dira.

ERREGISTRATUA EGOTEA NAHITAEZKO BALDINTZA
Dirulaguntza hauek eskatu ahal izateko, janarigile bakoitzak produktore bezala erregistratua egon behar du berari dagokion erregistroan. Nahitaezko baldintza da hori. Baina zer egin behar da horretarako?

Erregistroan sartzeko eta behar den agiria eskuratzeko, interesatuak janari manipulatuaren karneta ateratu behar du, lan horretan hiru urteko esperientzia edo ikastaroren bat egin baldin badu urte bateko esperientzia baduela frogatu, eta berak produkzioan zuzenki lan egin duela frogatu.

Gauzak horrela, badirudi dirubide honek, baserriko bertze lanen ondoan, nolabaiteko espezializazioa eskatzen duela, eta baita inbertsio koxkorra egitea ere.

JANARIGILE PARTIKULARRAK ETA ARTISAU JANARIGILEEN ELKARTEAK

Azaroan presentatu zen Iruñean momentuz Nafarroa mailan bakarra den Artisan Janarigileen Elkartea. Bere baitan bilduak daude Nafarroa osoko 15 familia edo enpresa ttiki, horietatik 3 inguru honetakoak (Sunbillako Lizun gaztandegia, Berako

«Aunitz dira erregulatatu gabe gelditu diren artisauak»

■ Nola baloratzen du EHNEk dirulaguntza bide hau?

□ Bertako produktuak egitera dedikatzen diren baserri eta artisauen egoera erregulatzea positiboa da. Baina gure ustez, Nafarroako Gobernuak egiten ahal zuen gauzarik erraxena egin du inizatiba honekin: jada funtzionatzen ari diren enpresen egoera legalizatzea eta diruz laguntzea, eta erregulatatu gabe utzi du edozein baserri maila ttikiagoan egiten den produkzio artizanala. Kontu honekin, artisau janarigilea nolabait enpresa bat bihurtze

bilatzen da, erregulazio tekniko-sanitario zorrotza beteko duen enpresa. Alde hortatik, Gobernuak gauza berbera eskatzen dio Iparlat edo Danoneri, eta gasnategi ttiki bati. Gainera, dirulaguntza hoietara biltzeak inbertsio dextente egitea eskatzen du, eta aktibitate bezala produkzioan espezializatzea, eta guzi horrek, nolabait, artisauaren kontzeptua bera desbirtuatu egiten du.

■ Arisau-janarigile kontzeptupean jende aunitz sartuko da ezta?

□ Nafarroako Gobernuak kontseilariak aipatzen zi-



Lourdes INDABURU
EHNE sindikatuko albaitea

gunez, Nafarroako mendialde osoan bederen 1.500 artisau sartzan ahal omen dira; ogia egiten dutenetik hasi eta pattarra egileetara. Pentsa zein zabala izaten ahal den!



Errotazar ahatekiak eta Lekarozko Larraldea sagardogilea). Nolanahi dela ere, Nafarroako Gobernuak badu aurrikusia dirulaguntza berezirik elkarreendako ere, batez ere, enpresak kudeatu eta gobernatzen esperientzia duten profesionalak kontratatuzko.

NAFARROAKO GOBERNUAREN INIZIATIBA HONEKIN, FUNTZIONATZEN ARI DIREN ENPRESEN EGOERA LEGALIZATUKO DA, NAHIZ ETA BERTZE ARTISAU BATZUREN EGOERA ERREGULATU GABE GELDITUKO DEN.

Bertzalde, elkarrekin ekonomia, teknika edo enpresa mailan aholkulariren baten zerbitzuak kontratatu nahi izan balute, elkarrekin osatu eta

lehenbiziko 5 urtetan dirulaguntzak eskatu ahal izanen dira, eta kasu honetan ere, urteak pasatu ahala murriz-

ten joanen da dirulaguntza (kostearen %75tik %10a bitarte). Merkatu ikerketa, marka komertzialen diseinua eta erregistro eta promozio kanpainak ere subentzionagarriak dira. Eta horretaz aparte janarigile hauek feria batera joan nahi badute, dirulaguntza bereziak eskatu ahal izan dituzte (egonaldi gastuen %70a bitartekoak).


Orain arte aipatutako dirulaguntza guzi hauek janarigile elkarreendako dira, baina janarigile partikularrek ere, bildu ahal izanen dira prestakuntza eta enpresaritze mailako ikastaroak burutzeko emanen diren dirulaguntzetara.

Kasu hauetan, ikastaro horien kostea oso-osorik ordainduko luke Nafarroako Gobernuak. ■

GAURKOTASUNEKO GAIA

GAL auzia

Ba al zenuten dudarik



Iñaki SANCHEZ
Irakasle lekaoren

Hamar urte pasa eta gero estatu 'demokratiko'

honen sotoan usteltzen ari den gorpuaren kiratsa goiko pisuetara ailegatzen hasia da. Hainbertzetan demokraziaz, aurrerapenez, giza-eskubidez, etika baloreez, terrorismoaz... burmuinak zamaten dizkiguteneen eskuak odolez zikinduta daude. Bizitza eskubidea goiengo eskubidetzat duten politikoak afera latz hau estali nahirik. Baina faltsukeria hau ez da oraingo gauza bat: ikusi ditugu intsumituak kartzelan, komisaldegi 'demokratikoetatik' pasatako "susmagarriak" hilik ateratzen, kartzelako presoak kolpatuak. Ez ditugu ikusi ordea polizi-buruak kargutik kenduak (sarituak baizik) ezta ministroen dimisiorik ere. Ez dugu lotsa demokratikoa ikusi. Estatuaren aurpegi krudel eta odoltsua agerian gelditu da. 'Legezko' bideak nahiko ez direnean hor daude funtzionari leialak, mertzenarioak, diru sekretuak... argitu ezinezko ilunbe beldurgarriak. Doazela itzallera delinkuente gezurtiak.

Erantzunkizun eta salaketatik aurrerago jo behar da honetan



Goizone SESTORAIN
Elkarri

Lehenik Roldan eta fondo erre-serbatuak eta orain GAL. Makina bat paper eta tinta erabiltzen ari da egunkarietan kulebroi honekin. Orain hainbeste eskandalizatu eta salatzen dutenen oneritziarekin urtetan babestu eta gordetako kakapilaren ziprztinak ari dira kaleratzen. Ez naiz sartuko salaketa eta gaitzespenetan. Bakarrak hiru gauza esan nahi ditut. Lehenik, kasuok zera erakusten dutela, sakonean Estatuak transizioz geroztik gatazka larria daukala konpontzeko. Euskal Herria eta Estatuaren arteko kontsentsu ezaren ondorio ageria. Bigarrenik, gai honetan azaldu den hipokresia azpimarratuko nuke. Hainbat politiko eta komentarietek estatua erasotzeko erabiltzen dute auzia, sakoneko arazoari heldu gabe eta GALek eragin dituen biktimak kontutan hartu gabe. Eta hirugarrenik, ikerkuntza judizialak hasi izana pozgarria da, baina ezin da mugatu erantzunkizunak argitu eta salaketetara. Aurrerago jo eta gaia orokorki hartu behar da.

Denok suposatzen dugu nor dagoen 'X' horren gibelean



Joxemari ARANIBAR
Berako baserritarra

GALen auzia egunkarietan segitzen duteta aunitz interesatzen zait, hurbileko gaia delakoz. Mundu guztiak bazekien Estatu atzean zegoela, baina denek ixildu dute orain arte. Orain ateratzea, Garzon epailea eta agintarien arteko gatazkaren ondorioa izan dela iduritzen zait. Izugarria iruditzen zait Garzonek Aginte judizialaren babesa eskatu behar izatea presioen ondorioz. Hori hagitz kezagarria da. GALen gibelean dagoen guziaz argitzea nahi nuke, baina nere ustez den dena argitzea hagitz zaila da. Nahiz eta denok suposatzen dugun nor dagoen X horren gibelean, zaila izanen da sakon sakonera ailegatzeara.

Zuzendaria: Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasas, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria, Arantxa Zabala... **Inprimategia:** Gertu (Oñati). **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



GAL

Mikel ALTZUART
'Dutari'

Baztango Bertso Eskola
Neurria: Zortziko Haundia

**Leitzako EAK
abenduren
23ko batzarrean
aurkeztutako
proposamenak**

Eusko Alkartasunaren udal taldeak, 1994ko abenduaren 23ko aparteko batzarrean egun-zerrendako 15. puntuari buruz egindako proposamenak honako hauek izan ziren:

1.- Idazkari jaunak udal honetan aurkeztutako informea zahaztasun eza, gertaera ez egiazko eta, bai Udal honi bai beste batzuei, dagozkien balorapen subjektibo asko dauka bere barnean, txosten juridiko batetarako erabat desegokiak eta, azken finean, suposamenduak baizik ez direnak. Aipatutako txostenak, garrantik kanpo izateaz gainera, orain salatzen dituen irregulartasun ez orduan ilegaltasun gaztigu izpirik azaldu gabe pasatzen utzi zituen, Udal honen Plenoaren erabakiak gogoratzen ditu.

2.- Hala eta guztiz, txosten honek sortu ahal izan dituen susmoak uxatzearen, Udal honek Kontuen Ganbarara bidaliko ditu, nola txostena hala bertan aipatzen diren ekintzak onartu zireneko bileren akten kopiak.

Aldi berean eskatzen dio Kontu Ganbarari Udal honen ihardunbidearen fiskalizapen txostena egin dezan 1983tik hona, hau da, Udal gestioaren kanpoko auditoria egin zenetik.

3.- Idazkariaren txostenak aipatzen dituen obrei buruz, beraiei dagozkien ekin-tzen jokaera erabat legezkoa eta Leitzako azpiegituren baldintzen hobea-gotzerako hain garrantzitsuak izateaz gainera, oso modu eraginkorrean eraman direla uste du Udal honek, eta baliabide ekonomiko edo zerbitzuko guztiak aplikatu zaizkiela.

LEITZAKO EUSKO ALKARTASUNA



**Itoizko
koordinadoraren
mobilizazioak**

Itoizko koordinadora eta Irati bailarako Udaletxeek aurkeztutako kexua artxibatu ondotik, Itoiz inguruko lanak berriro hasi dira, Administrazioaren aparatuaren inertzia dela eta (konstruktoreen interes ekonomikoen presiopean) eta ofizialki erraten ez den helburu batek, hau da, 'Plan Hidrologico Nacional' delakoan ageri den Ebro ibaia-aren trasbasea, Estatuaren-

tzat duen garrantziagatik. Lanei berrekiteko politika honek, lanak hasteko Antonio Aragonek erabili zuen berbera alegia, instituzioek ez dutela eztabaidatu nahi eta lan honekin arlo ezbedinetatik sortutako aunitz galdera gorde nahi dituztela erakusten du. Egoera honen aitzinean, Itoizko koordinadora eta urtegiaren proiektuaren kontrako oposizioa osatzen duten taldeok hurrengo egunetan burutuko diren mobilizazio eta ekitaldietan parte hartzera gonbidatzen dugu gizartea. Honela konkretuki, hurrengo **otsailaren 18an**, larunbata, Itoizko urtegiaren kontra dauden talde politiko, hiritar, ekologista eta sindikalek deitutako manifestazioa burutuko da. Irteera **arratsaldeko 5,30etan** izanen da **Iruñeko** Autobus estazio-tik "Itoiz Gelditu" lemapean. Bertze aldetik, Nafarroako Gobernuaren aitzinean konzentrazioak egiten hasiko gara berriro. Koncretuki, otsailaren 4 eta 11an, larunbatak, eguerdiko 12etatik aitzinera.

ITOIZKO KOORDINADORA



Lehenago ez zuten gai hau argitu non izpi bat borondate? hiru botere 'independiente' justizia saltzen merke Sumarioak etxita zeuden dela orain zenbait urte zertarako ereki dituzte dena argitzeko ba ote!?

Herritar euskaldun erahilak aizkora haundi baten ezpala Estatuaren esku zikinak ez dira garbitzen ahal Gobernuak eskuz aldatuta bizpahiru gartzelan argal batzuek irabaziko dute baina justiziak beti GAL.

**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



MATXINBELTZENEA

LESAKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA



KATTU
OSTATUA
JATETXEA



LESAKA



Euskaldunon Egunkaria 95+19

«Neskek futbolean egiten dugula ez dakitenak badira oraindik ere».

Ainhoa BAKERO
Goizuetar futbolaria
Egunkaria 95+19

◆ **Herri ttikietako inauteriak edo haundietakoak?**

❖ Dudarik gabe, ttikietakoak.

◆ **Herriko bestak edo inauteriak?**

❖ Inauteriak, bertako saltsa gehiago agertzen delakoz.

◆ **'Goenkale' gustoko duzu?**

❖ Kulebroiak ezta pentsatu ere, zero!

◆ **Taxia edo ostatua lan egiteko?**

❖ Biak, bakoitza bere tenorean. Taxia errexagoa da.

◆ **Bidai luzeak edo motzak?**

❖ Luzeak.

◆ **Nora gustatuko litzaizuke joatea oportretan?**

❖ Tropiko aldera neguan.

◆ **Egin duzun azken bidaiia?**

❖ Brasilgo Bahiara iaz.

◆ **Politiko bat...**

❖ Bat ere ez.

◆ **Kirolari bat...**

❖ Lejarreta.

◆ **Musika talde bat...**

❖ Delirium Tremens.

◆ **Zein janari prestatzen duzu gustoen?**

❖ Paella.



Joxemi ARBELAITZ
Zubietako
taxista

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA



BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

MOLINERO
PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40 • BERA



ZALAIN
JATEXEA

EGUNKO MENUA LIA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa

☎ 63 09 67

BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



Musika eskolan ere Erreformatik eragina du

Bi eredu ezberdinetan ikasteko aukera izanen dute ikasleek

KRISTINA BOAN

Azken ikasturtean musika eskolan ere ikasteko aukera berria zabaldu da. Erreforma berria musika irakasuntzan martxan jarri da, eta hori dela eta, bi eredu diferente eskeintzen zaie ikasleei: A ereduaren arabera, solfeo bitartez musika tresnaren bat ikasi nahi dutenak egonen lirateke. B ereduaren arabera, berriz, solfeo jakin gabe instrumentoren bat jo nahi dutenak. B eredukoek 20 minutuko klaseak dituzte eta taldeka ematen dira. Horrela, lau lagun biltzen dira irakaslearekin eta 80 minutuko klasea hartzen dute. Sistema honen bitartez, musika tresna guztiak ikasten ahal dira, kurtso akaberan kontserbatorioan azterketa bat pasatuko dutelarik. Eredu hone-tako ikasleek 4.200 pezetako tarifa ordaintzen dute hilabetean.



Musika ikasketetako B ereduari, instrumento ezberdinak ikasten ahal dira solfeorik jakin gabe
Argazkia: Artxiboa

A eredukoek berriz, solfeo tarifa bertzerik ez dute pagatzen eta horrekin musika tresna eta koralerako aukera ere badute. Tarifa hori garestiagoa da kurtsoaren arabera. Momentuan, hauek dira ikasten ahal direnak: pianoa, akordeoia, txistua, saxofoia, klarineta, biolina, tronpeta, bateria, flauta, gaita eta atabala.

Izaskun Dorronsoro kirolegiko arduraduna

Kirolegiko arduraduna Lesakan bizi den Izaskun Dorronsoro irundarrak hartuko du bere gain. Aspaldi ateritzen enkantera bi bertzerik presentatu ez zirenez, eta horietako bat azken momentuan gibelera bota zenez, berari egokitu zaio gestioa eramatea. Momen-

tuz, gimnasioaz arduratzen den Susok ez du lana utzi beharko, ber-tze urte batez luzatu baitzaio kontratua. Berak gimnasioan segituko du eta gimnasioa klaseak Izaskun-ek emanen ditu. Kirolegia erabili nahi duenak tarifa bat pagatu beharko du.

ttipi-flash

Basurdeen kalteak

Zalaingo auzokideek Ehiza eta Arrantzaren elkartean eta udaletxean keja agertu dute, erre-serbako basurdeek lur sail partikularretan egiten dituzten kalteak direla eta. Udalaren erantzuna honako hau izan da: erre-serbaren ardura Ehiza eta Arrantza elkartearena denez, eurekin egon beharko dutela hori moldatzeko. Hau dela eta, bilera bat egingen omen da.

Kaldereroak

Otsailaren 18an ateriko dira kantari, Iñauteri aitzineko larunbatean. Entsaioak otsailaren 15, 16 eta 17an izanen dira Iamoteneako gelan, iluna-barreko Setan.

Berako Talde Antimilitaristak

astero egiten ditu bilera informazioa zabaltzeko. Asteazkenero biltzen dira Iamotenean arratsko Setan. Jen-deak parte har dezaten animatzen dute.



ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA



© 631076 • BERA

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

Lesaka

261 milioitakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Aztertzeko 24 ordu bertzerik ez zutela izan eta kontra botatu zuten HB eta EAko zinegotziek

AITOR AROZENA

261.827.614 pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua, urteko lehen pleanoan PNVko zinegotzien aldeko botoarekin onartu ondotik. Modu honetan, udalak iaz baino 105 milioi pezeta guttiago izanen du gastuetarako.

HB eta EAkoak kontra botatu zuten, aurrekontuak aztertzeko 24 ordu bertzerik ez baitzuten izan. HB-koen erranetan "hau ez da serioa, ez etikoa, errespeto gutxikoa bai-zik" eta aurrekontuak "bakarrik PNVrenak direla euren interes politikoa defendatzen dutelako, eta ez herriarenak".

Alkateak bere alde-tik, HB eta EAkoen lotsagabekeria salatu zituen "gezurrak errateko errestasuna eta lanerako gogo gutti" dutela erranez. "Aurrekontu hau abenduaren 29ko Hazienda batzordean esplikatuzen"



Guatemalari buruzko erakusketa burutu zen joan den astean Arranon. Hegoamerikako artisautza ere salgai egon zen Arg.: AITOR

Jose Luis Etxegarai-ren arabera.

HBko bozeramaileak alkatea gezurretan ari zela erran zuen, "batzorde hori ez zen bere orduan hasi, zinegotzi bat hogeit minutuz esperatzen egon baitzen". Alkateak berri-zen, bulegoetan hiru orduz egon zela erran zuen, "ateak irekitzen jakiteko bezain haundiak direla" gaineratuz.

«Neguko beroa, kultur giroa» Matxinbeltzanean

Izen horrekin zenbait ekitaldi antolatu dituzte Matxinbeltzanean. Astelehen honetan, Inñurategi anaien diapositiba emanaldia izan da. Otsailaren 16an, arratseko 7etan Andoni Egaña arituko da bertsoaritzaz solasean eta bidenabarkoan bere diska aurkeztuko du. Hilaren 23an,

Josu Txuek "Euskal Ihauteriak" izeneko diapositiba emanaldia eskeiniko du 7etan. Martxoaren 9an, ordu berean, Juan Kruz Igerabideren poemak izanen dira entzungai eta oraindik zehaztu gabe badago ere, martxoaren 23an, Erramun Martikorenaren kantaldia izanen da.

ttipi-flash

- ❖ **Euskara ikasi**
edo hobetu nahi duenak matrikula epea zabalik du otsailaren 11a bitarte. Informazio gehiago Bortzirietako IKA euskaltegian (Matxinbeltzenea) edo 637796 telefonora deituz.
- ❖ **Karrika salmentarako**
eguna ortzegunetik ortziralerara pasatu da. Saltzaileek horrela eskatu dute eta herriarren artean ere hori omen da ohitura.
- ❖ **Lera zakurrak**
Oskar Fernandez lesakarrak bigarren postua eskuratu zuen kategoria berezian, urtarrilaren 22an Abodi mendian egindako lera zakur proban.
- ❖ **Udal idazkari**
lanposturako lehiaketan Andoni Esparzak lortu du puntuaziorik altuena.
- ❖ **125.000**
pezeta ordaindu ditu udalak, alkatearen kontrako juzizioan fiskalak eskatutako fidantza gisara.

EROSLE

LESKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESKA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESKA

BEREAU

Lesakako Bidegurutzean

Tfnoa: 63 73 82 - LESKA



KOXKILA
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESKA


EtXalar

Herriko errepideak moldatu beharrean dagoz

Udalak eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari

PELLO ETA ALBERTO

EtXalarlatsako bi-degurutzetik hasita, Iruña-Irun errepide edo karretera nagusitik Sarako mugaraino, zola nahiko hondatua dago. Eta zer erranik ez, Baztan eta Zugarramurdiko bidea; hor zuloak eta zatiak joanak ere ikusten baititugu. Horrela, zola breaztatzeke eskatu dio Udalbatzak Nafarroako Gobernuari. Dena den, Zugarramurdikoan zerbait gehiago ere egin beharko du.



Eskolako neska-mutikoez irratia munduan trebatzeko aukera izan zuten Xorroxin irratia paratutako tresneriari esker

Argazkiak: PELLO

Mendira ibiladiak

Gazteak hasi dira mendira ibiladiak antolatzen. Lehen egunean 27 bildu ziren, haur eta gazte, hantako sasoi probatzeke bidean, Mendixorrotxeraino maldak

gainditu baitzituzten. Denaden, lehenbiziko ibilaldia da, baina ez bakarria; eguraldia lagun, segitzea pentsatzen dute eta.

Haurren irratsaioak

Urtarrilaren 16tik 20ra artean entzun ahal

izan dugu goizero Landagain eskolako hurrekegindako irratia saioa. Xorroxin irratia zuen paratua, aitzineko urteetan bezala, behar zen tresneri guzia. Zenbait jende elkarrizketatu zituzten saioetan, hala-nola, Arantxipiko Periko,

Telleriko Bordako Joxe Manuel eta Patrizia Arburua, Bortzirietako euskara teknikaria. Gauza berezitat jotzen ahal dena, eskolaurreko haurren partehartzea da, mikrofona eskutan eurek ere egin baitute saioa.

Oihana hobetzea

Udalak mendietan egin duen lanagatik 2.100.000. pezetako laguntza hartu du Gobernuarengandik.

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza



HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

Urte berriarekin batera indarberrituak
Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira

© 635290
ETXALAR

INAUTERIAK BAHIA - Brasil

15 egun (Otsailaren 16tik martxoaren 2ra)
Hegazkina + **** hotela + gosaria

115.000 pezeta



Informazioa: 637050 telefonoan
MALDAERREKA Bidaiak

Igantzi

Udarako egin nahi dira Hirurteko Plangintzako lanak

Iñauteriak otsailaren 17 eta 18an izanen dira

OSKAR TXOPERENA

Nafarroako Gobernuak onartu berri dituen obrak udarako egin nahi ditu udalak: Fraingo depositotik herrira arteko uraren tuboa aldatzea eta Bidasoa ezker aldeko Berrizaungo saneamendua egitea, hain zuzen. Herrian eginen denak 10 milioiko aurrekontua du, Berrizaungoa 20 milioi inguru gostako delarik. Hirurteko Plangintzan sartuak daudenez % 63ko laguntza hartuko da Nafarroako Gobernutik, 'fosa septikoak' egiteko ez bertze, horiek NILSAk osorik bere gain hartuko baititu.

Haize bolada gogorra

Kalte dexente utzi zuten herrian barrena,



Argazkia: OSKAR

Inongo mugimendurik sumatu ez badugu ere, pentsatzekoa da otsailaren 17 eta 18an eginen direla iñauteriak. Berandu xamar dabila jendea antolaketa lanetan, baina azkenean, ziur gaude zerbait plantatuko dela. Bertzalde, Ortzegun Gizen eguna 23an da aurten. Ea haur guzikiak mozorroturik ikusten ditugun egun horretan, goian ageri diren horiek iaz ibili ziren bezala

urtarrilaren 17an ilunabarrez ibilitako haizeak. Etxe aunitzeta-koteilatu, telebista antena etabar hondatu zituen. Oilategian ere

bere arrastoa utzi zuen, teiltuaren laurdena eraman baitzuen zenbait zati 200 metrotera zabalduz. Aspaldian ibili den haizerik bor-

titzena dudarik gabe. **Gripe izurritea**

Jende aunitz dabilazken aldi honetan gripeak hartuta. Eskolara joatea bertzerik

ez dago horretaz ohar-tzeko, haur aunitz falta baita eritasuna dela eta. Garai aproposak izaki horretarako ere.

SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47

LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA



Iñauteriak otsailaren 9tik 12ra ospatuko dira

Igandeko bertso saioaren aitzinetik, ortzegunetik larunbatera eskean ibiliko dira mozorroak baserri eta herrian barna

GARBINE ETA ELIXABET


Iñauteriak poliki-poliki iritsi zaizkigu. Ilusiorik ez da falta, disfrazatzeko gogoak ere ez, eguraldiaren itxaropenetan gaude: joan den urtean elurra egin zuen. Ea aurten hobe egin duen. Honako egitarau hau izanen da:

Ortzeguna, 9:

Egunez mozorroak txuriz jantzirik baserri baserri ibiliko dira, beraien akordeo eta guzi diru eskean. Gaez, ohiturari segituz, emakumeen afaria izanen da.

Ortzirala, 10:

Mozorroak berriro diru eskean ibiliko dira, bertze auzoetan barna. Gaez musika izanen da plazan eta



Luisi emandako plaka Patxik eskeiniaz zen eta ez udalak, aitzineko alean paratu genuen bezala

Joakin mozorroekin batera ostaturaz ostaturaz ibiliko da akordeoia jotzen.

Larunbata, 11:

Oraingoan mozorroak herrian ibiliko dira diru eskean eta arratsaldean disfrazen lehiaketa, mozorroak epaile direlarik. Gaez Irati musika taldea plazan izanen da.

Igandea, 12:

Eguerdiko 12etan frontoian apustu ikusgarriak izanen dira. Manana Bergarak 35 ebakialdi egin behar duko dituzto moztzerarekin eta Oskar eta Joxe Miguelek 10 ebakialdi arpanarekin, nork lehenago bukatu. Ondotik ere, mozorroek indarrak probatzeko aukera izanen dute.

ttipi-flash

Euskara klaseak

Euskara ikasi edo hobetu nahi duenak matrikula epea zabalik du otsailaren 11a bitarte. Informazio gehiago Bortzirietako IKA euskaltegian (Lesakako Matxinbeltzanean) edo 637796 telefonora deituz.

Bukatzeke, Sebastian Lizaso, Peñagari-kano eta Unai Iturria bertsolariak arituko dira. Plazako saioa bukatutakoan, Aterpen bazkaria izanen da bertsolariekin batera eta gaez Gregorio arituko da musika jotzen.

SASKI OSTATUA
LESACA

<p>IKUSMENAREN BERRESKURATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> Miopia Bista alfertua Estrabismoa Begi lausoak-kataratak 	<p>GIHARRE ARAZOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Bixkortzea Artritia, erreuma Artrosia, Lumbalgia Bihurdurak, etab... 	<p>MAGNETISTA NATUROPATA 623055 San Marcial, 7-4 IRUN</p>	<p>ONDORIOETATIK INDARTZEKO</p> <ul style="list-style-type: none"> Diabetia Asma Larru azaleko alergia Buruko mina Zizareak Oinen izerdia Prostata, etab...
--	---	--	---

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldean 2-7etara. Ordua eskatu

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

Zure ingurua klase guzitako insetuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECCIONES
☎ 63 01 55
BERA

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle

Zure klienteek irakurtzen dute Zure publizitatea **ttipi-ttapa**

GAZTANDEGIA Etxeko Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Sunbilla

Lapurretak ugaritzen ari dira azkeneko egunetan

Iñauterietako lehen egunerako antolatutako emakumeen afariak izugarrizko arrakasta izan zuen

IXABEL ETA JOSUNE

Jotake dabilta lapurrak Sunbillako herrian, bortzegunen barnean bi dendetan sartu baitira. Lehendabiziko Bibi janaridenda sartu ziren eta 'kaja registradora' osorik eraman zuten, han zegoen diruarekin noski. Biharamonean, Mari-sol janaridenda estankoan sartu ziren. Hemendik tabakoa eta kajan zegoen dirua harapatu zuten.

Argi dago lapur hauek arras kontrolatua dutela herria eta lasai lasai ibiltzen direla. Izan ere, toki batean gehienek ezagutzen ez dugun toki eta leiho batetik sartu baitziren. Bertzean berriz, uhalde aldetik dagoen leiho



Emakumeen afariaren antolatzaileek -argazkian ageri dira batzuk- espero ez zuten arrakasta lortu dute

batetik sartu, barrenean lasai ederrean ibili eta ate nagusitik atera ziren, hau zabal-zabalik utzita, gainera.

Loteria

Errege bezperan

zozketatu zen loteria Bustitz ostatuan tokatu zen. 3.000 pezetako dezimoari 33.000 pezetako saria egokitu zitzaion. Ez zen batera bokadu txarra izan,

egun horietan gastu ugari izaten direla kontutan hartzen badugu.

Zakur laisterketa

Urtarrilaren 21 eta 22an Otxagabian,

Abodin konkretuki elur gaineko zakur laisterketa jokatu zen. Bidal herritarrek, hamaseitik seigarren postua lortu zuen. Hau probetuz zorionak eman nahi genioke, hain denbora gutxiz postu onak egiten ari baita.

Emakumeen afaria


Aurtengo iñauterietan lehen aldiz emakumeen afaria antolatu da. Hasiara batean gehienez 30 emakume bilduko zirela uste bazen ere, azkenean 70 emakume inguru bildu ziren Iñauterietako lehen egunean.

Aipagarria da gainera, adin guztietako emakumeak bildu zirela, 15 urtetatik hasi eta 70 urterainokoak.

BEINTZAKO OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

SANTAMARIA Jatetxea
Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ttipi-ttapa
5.900 harpidedun
20.000 irakurle



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

*Koltxoa aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.
1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan.*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

'Behinpin' taldeak urte honetarako asmoak azaldu ditu

Kultura eta zerbitzu arloetaz gain, ingurugiroari lotutako gaiak ere jorratuko dituzte aurtengoan

TXEMA ETA KARMELO

'Behinpin' taldeak 1995erako dituzten ekitasmoen berri eman du. Orain arte funtzionatzen zuten kultura eta zerbitzu komisioren batera Ingurugiro gaitiaz arduratuko den komisia ere martxan paratu dute.

Komisio hau "irekia dago eta bertan zonaldeko ingurugiroarekin zerrikusia duen guztia jorratuko da". Behinpineko Arantxa Arregi eta Begoña Iltzarberen erranetan. Honela, birziklapena, zabortegi ez kontrolatuak lokalizatu eta jendea arazoaz sentsibilizatzea edo erreka bazterren garbiketa izanen dira zeregin nagusiak.

Zerbitzu batzordean eskualderako COFES zentru bat lortu nahian dabilta eta administrazioaren aitzinean zenbait pauso emanak dira. Aurtun, sentsibilizazio kanpainarekin eta zentrua jar-tzeak suposatuko lu-



Arantxa Arregi eta Begoña Iltzarbe 'Behinpin' taldearen urteko plangintzaren berri eman dute

Argazkia: KARMELE

keen abantailak esplikatu nahi dituzte. Halere, "luzerako gaia denez, presio soziala beharrezkoa izanen da zerbait lortzeko" taldeko ordezkariak erran dutenez.

Kultur batzordeari dagokionez, ikastaroak, tailerrak, zenbait ekintza eta lehiaketak antolatzeke asmoa agertu dute 95erako plangintza honetan.

Ipuin emanaldiak liburutegian bi astetik behin asteazkenetan

Bi astetik behin eta asteazkenetan arratsaldeko 5etan ipuin emanaldiak izanen dira liburutegian. Ipuinak edozeinek kontatzen ahal ditu eta horretara animatzen denak aski du 451712 telefonora deitzea eta izena ematea. Hama-

bortz egunetik behin beraz, belarriak ipuinez goxatu ahal izanen ditugu.

Aipatu behar da udal liburutegiak gaur egun 275 bazkide dituela. Guztien gustoa betetzeko 2.600 liburu eta 60ren bat bideo eskura daude.

ttipi-flash

Doneztebetik Elgorriagarako

bidea martxoaren hondar aldera akitua egonen da. Azpikontratekin arazok izan badira ere langile berriak hartu dira.

7. eta 8. mailako

eskolako 40ren bat haur Udala eta Mankomunitateko lokalak ikusi eta funtzionamenduari berri jakin zuten.

Iñauteriak

otsailaren 17, 18 eta 19an izanen dira. Mozorroak eta umorea prestatzen hasi beharko dira.

K-2 mendiko

diapositibak botako dira Malerrekako euskaltegian, otsailaren 3an, ortziralean, arratsaldeko 6etan. Ondotik, jotzen diren guzietan berrendua emanen zaie.

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

MariCruz
LENTZERIA

MERKEALDITAN gaude

Taila sueltoak prezio berezietan

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**

Malerreka

Pisu tutelatuak hamabortz hilabeteren buruan eginak

Sunbilla eta Bertizaranako udalak kanpoan gelditu dira

TXEMA ALDABE

Urte bat eta hiru hilabeteko epea izan den du Fausto Ostozala eraikileak babeseko pisuak egiteko. Lana konkurtsora atera ondoren, hiru eskeintza aurkeztu ziren eta eskeintza ekonomiko eta teknikoaren txostena aztertu ondoren, Faustori eman diote egitearen ardura. Lan honen barrenean dago Intzarkardi parketik Elizagibelera egin den zubia, apirilaren hondarretarako egin dena.

115.718.731 kostoa izan da guztira. Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Ongizate So-



Bertizaranako udalak ez du proiektuan parte hartuko

Arg.: Artxiboa

zialerako kontseilari-tzak diruz lagunduko dute, azken honek proiektua eta pisuen

bideratzea oso osorik eginen duen artean. Malerrekako udal guztiak sartu dira afera hone-

tan Sunbilla eta Bertizaranako kenduta. Legasa eta Narbarteko kontzejua sartu dira.

Doneztebeko errepetidorerako bidea 40 milioitan

Doneztebeko telebista errepetidorerako bidea Kastejongo 'Perez del Rio' enpresak eginen du, Nafarroako Gobernuak Komunikabidetarako kontseilariak hartutako erabakiaren arabera. 40.046.777 pezetatan (hasierako prezioetik %20eko jeitsiera) eginen dituzten lanak enpresa horrek eta hiru hilabete erdiko epea izan behar du lanak akitzeko.

Ezkurra

Iñauteriak giro onean igaro ziren

Gabon gauean ateratako dirua Zairera bidaliko da M^a Cruz Noble herriko mojarrekin

NIEVES GOÑI

Errege egunean hasi ziren Ezkurrako inauteriak eta umore onean igaro ziren. Larunbatean, Mikel Mendizabal eta Mañu-korta bertsolariak izan ziren eta aurtengoan, bertsoekin batera txistekin ere parrez lehortzeko aukera izan zen. Dagoeneko datorren urteko inauterien esperoan daude.

Laguntza Zairera

Gabon gauean es-



Dagoeneko datorren urteko inauterien esperoan daude Ezkurrari

kean ibili ondoren lortutako dirua Afrikako

Zaire herria laguntzeko erabiliko omen da.

Mari Cruz Noble, herriko alaba, misiolari

bezala dago Zairen eta dirua bertara ailegarratzeko, zuzenean berri emango zaio. Izan ere, udaberri aldera herriko etortzeko omen da M^a Cruz Noble, aste batzuk pasatzerako.

Haize-errotak

Zurumurruek diotenez, Eratsun eta Ezkurra arteko Ezkain mendian argi indarra sortzeko hogeita hamar haize errota jaritzeko asmoa dago.

Egia izatekotan, haize lekua izateari probetxua aterako diote inguru horretan.

ITUREN

Maika Ariztegi Nafarroako txapeldun

Oitz eta Beintza-Labaiengo herri bazterrak moldatzen aritu diren langileei akitu zaie kontratua

INEM eta Udalen artean egina zitzaien kontratua langile hau-
ei. Dena den, Oitzen

3 hilabetez aritu dira 3 lagun karrikako pa-
retak moldatzen. Beintza-Labaienen

berriz 2 lagun aritu dira 3 hilabetez herri bazterrak apaintzen eta moldatzen.

ttipi-flash

❖ **Langarra**
euskara taldeko bi-
lera otsailaren 2an
7etan izanen da Ju-
bilatuaren ostatuan.
Egin beharreko la-
netaz arituko dira.

IBAN ISASI

Urtarrilaren 22an Maika Ariztegi Burlatan Nafarroako cross txapelketa irabazi zuen, bigarrenaria minutu bateko aldean ateriz.

Argisurrako zubia hondatua

Lasaga eta Aurtiz Argisurra parajetik elkartzen dituen zubi erromanikoa erdi erorita dago. Azken egun hauetako euriteek eragin handia izan dute, aitzinetik ere nahiko hondatuta zegoen zubi honengan.

ZUBIETA

Iñauteriak bukatu eta errutinara bueltatu gara

AINHOA MUTUBERRIA

Jai hauetan, beti bezala, arazo batzuk sortu dira. Ohitura da iñauterietako lau egunotangazteak elkartzea otorduak egiteko. Aurtien, betiko sukaldariak okupatuta zeuden eta beste batzuk aurkitzea asko kostatu zaie, baina azken momentuan arazoa nolabaitere konpondu da. Hortaz aparte, fiestak izugarritzko arrakasta izan du. Urtero bezala, jende asko bildu da, batez ere asteartean gure herriko egun berezia delako.

**P.A.C.
95**

ESKA EZAZU "AZALERAK 1995" LAGUNTZA CAJA RURAL DE NAVARRAN



"Azalerak 1995" Laguntza zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarrak zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu.

Etor zaitez Caja Rural de Navarrara eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

"Azalerak 1995": nekazal esplotazio hauen jabeek zuzendutako laguntzak; zerealen laborantza, oleaginosak, proteaginosak, gari gogorrendako suplementuak, lekadun aleak, bazkalekuak, haragitarako betabereak

(abeltzain dentsitate faktorearen kalkulua). Guzti hauek eskaera bakar bat aurkeztu behar dute 1995erako Lurgorri eta 1995erako uztarako ereintza Plangintza'rekin lagunduta.

**SISTEMA
AUTOMATIZATUA
DUEN ESKAERA
ZERBITZU
ESKUSIBOA**



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

«Karretera ez bada epe motzean konpontzen neurriak har ditzakegu»

Horrela hitzegin du Miguel Jose Lekuona, herriko alkateak

ESTEBAN AROZENA

Ongi badakite herritar guztiek Goizueta eta Hernani lotzen dituen errepidea nola dagoen. Egunetik egunera ahots gehiago entzuten dira herriarentzat hain garrantzitsua den bide horren egoera lotsagarria salatuz, eta hainbeste jenderen kezka honen aurrean udalaren iritzia jakin ahal izateko Miguel Jose Lekuona alkatearengana jo dugu.

Honek esandakoaren arabera, azken urtean bost bilera burutu ditu Iruñean gai honekin, azkenekoa duela hamar bat egun. Lopez Borderiasekin



Jose Manuel Oartzabalaren ordez Xabier Legarreta ari da bertso eskolako irakasle bezala. Bertso eskolako lehen promozioiko ikaslea izana da aranoarra eta aurten Nafarroako txapelketan lehen aldiz parte hartuko du

Arg.: Xabier Mikel UITZI

elkarrizketatzea izan badu ere alkateak helburu. Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako kontseilariak bere departamenduko zuzendari orokorra-

rengana bidali du beti, errezibitzeko denbora ezaren aitzakia erabiliz. Zuzendariak berriz, azken hitza kontseilariak berak duela adierazten omen

du, proiektua aspaldian egin dagoela argudiatuz. Hori bai, garbi uzten omen du beti errepide bakoitzean ibiltzen diren autoen kopurua oso kontutan

hartzen dutela zolaberritze edo beste edozein konponketa agintzerakoan.

Dena den, azken bileratik Lekuona ez omen zen erabat etsitua atere. Badirudi hurrengo apirileko proiektu berri bat prest egongo dela lehengo hobetuz. Horrela, zolaberritzeaz gain, kunitak ere berrituko litzukete. Bukatzeko, alkateak esan zigunez, "ondorengo hiruzpatalu hilabeteotan gai honetan aurrerapauso sendorik ez bada ematen, edozer baliabide erabili dezakegu Iruñeko Administrazioaren aurrean gure haserrea agertzeko".

Areso

Aranzadi zientzi elkarteak herriko ondarea aztertuko du

Uli mendiko kobazuloa begiratu nahi dute

JUANA MARI SAIZAR

Aresoko herriak badu bere historia, beste edozein herrik bezalaxe, baina oso gutxi dakigu horretaz. Orain dela 200 urte frantsesek herria errezutenean, historiaren zati bat ere erre zuten. Argitaratu zen liburu batean ("Brujeria navarra" izenekoa) nahi-ko garbi agertzen da kobazulo bat daukagula Uli mendian eta



honekin batera sorgin istorio luze bat. Hau egiaztatzeke lehenen-

go pausoak ematen ari dira eta Aranzadi zientzia elkarteko tal-

de bat etorriko da ikustera eta zerbait dagoen aztertzeraz.

Elizara igotzeko eskailera berritzen ari dira, harriak ateraz eta barandak eginez. Hor bertan, ureztatzeke tutu bat egin dute.

Arg.: Juana Mari

Babes ofizialeko etxebizitzak

Udala herribarneko I. zonaldeko lurak bereganatzeko lehen pausoak eman ditu. Hemen babes ofizialeko etxebizitza berriak egitea da bere asmoa. Honetarako gazte askok egin dute eskaria eta bestelako jendea ere interesatua egongo litzateke. Badirudi, polikiroldegi bat egiteko asmoa ere hor dagoela.

Leiza

Eskolako 'Agrikola'n berrikuntzak egiten ari dira

Nafarroako Gobernuak bultzatutako lan honek 27 milioi pezetako aurrekontua du

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako Eskualdeko Ikastetxe Publikoko "Agrikola" deituriko eraikian, 27 milioi pezetako aurrekontua duen obra egiten ari dira. Lan honekin, haurrentzako irakas-kuntza eta lehen urratseko lehenengo kurtsoak bertan emango lirarteke. Obrak eraikian eta patioan egingo dituzte. Beheko solairuan lau gela eta komunak egingo dituzte, lehen solairuan atak aldatu eta bigarren bi gela gehiago eta gimnasia egiteko lekua ere egingo dituzte. Sarrerako eskailerataz gain, ranpa bat ere egingo dute. Patioan pista eta estalpea egiten ari dira eta jantokira joateko, Agrikolako irteeraren parean beste sarrera bat egingo dute, arrisku gutxiago izateko kamioa igarotzerakoan.



Eskola zaharraren atzekaldean ere estalpea egiten ari dira Joseba

Francisca Zabaletak liburua kaleratu du

Francisca Zabaleta, herriko doktoreak "Bigarren Hizkuntzaren Irakaskuntza murgiltze-ereduan" izenburuko liburua kaleratu berri du Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Hezkuntzaren D ereduan aritzen direnei zuzenduta dagoen liburu honetan Zabaletak, ikasgelako eta

etxeko hizkuntzak ezberdinak direnean, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa aztertzen du. Franciscak, ikasleak bigarren hizkuntza bere kabuz erabiltzeko behar diren baldintzak aipatzen du. Euskararen murgildutako ikasgela batean bideo grabaketa ugari egin ondotik, hi-

ru urtetik sei urtera birtarteko haurren eskola jarduera eta beren hizkeraren bilakaera deskribatzen ditu. Lanaren ondorioetan bigarren hizkuntza irakatsi eta erabiltzateko helburu berezia duten Haur Hezkuntzaren ikuspegi zabala bereganatuko du irakaurleak.

ttipi-flash

- ❖ **Akatsak zuzenduz**
Patxi Arrazolako espaloiarenekin lanak ez dira oraindik adjudikatu, aurreko alean besterik jartzen bagenuen ere.
- ❖ **Umore ona inñauterietan**
Umorea eta giroa ez dira falta izan aurtengo inñauterietan. Igandeko bertso saioak txoko berezia lortzen ari da egitarauaren barnean.
- ❖ **Kontsumitaileen elkarte**
'Iratxe' Nafarroako Kontsumitaileen elkarteko ordezkaria otsailaren 7an eta 21ean, goizeko 10etatik 1etara egongo da Leitzan. Karneta edo NAN berritzeko berriz, otsailaren 10ean, 9,30etatik 11ak arte egongo da.



Mikel Olano: «Sorpresa handia izan da Donostia Hiria ipuin lehiaketa irabaztea»

Mikel Olano, Donostian jaiotako 26 urteko leitzarrak irabazi du aurtengo Donostia Hiria ipuin sariketa, "Bizkarrik ez dudana emakume" izeneko ipuinarekin. Epaimahaiak 84 lanen artekin berea aukeratu zuen eta beretzat ere nahiko sorpresa izan da. Bera ez omen da idazle sentitzen, "irakurle

eta batez ere, ikasle" baizik. Gustoko dituen idazleen artean Arantxa Iturbe, Juan Luis Zabala eta Patziku Perurena herritarra aipatzen ditu eta honek "beharrezko den kritika egiten duela" iduritzen zaio. Ipuin irabazleari dagokionez, lehendik idatziak zituen bi pa-

sarte bildu omen ditu, umore beltzaren ukituak emanaz. "Behar bada kontatzen diren gauzak nahiko dramatikoak dira baina ironia pixka batekin agertzen saiatu naiz". Sariketa bat irabazten duen lehen aldia da eta honek dirusarriaz gain, bere lana argitaratua ikusteko aukera emango dio.

Baztan

Arizkongo industrialdea bultzatuko du udalak

Lau enpresak eginga omen dute Ordoki auzoko lur industrialean ezartzeko eskaria

JOSEBA IGARABIDE

Arizkongo Ordoki auzoko industrialdearen garapena bultzatzea erabaki du aho-batez udalak. Orain arte Naberri, SAT Amaiur gasnategia eta pentsu kooperatiba toki horretan kokatuta daude. Orain bertez lau enpresek eskatu dute industriarako lurra, horietatik bi sortu berriak direlarik.

Udalak azpiegitura lanak bultzatuko ditu (ura sartu, errepidea, urbanizazioa...). Bertzalde, Iruritan ere industrialdea sortzeko asmotan dabilta. Udalak metro karratu bakoitza 5.500 pezetatan eskeiniko omen du. Ustez, 22.000 metro okupatuko lirateke. Udalak, hiltegi berria inguru honetan eraiki nahi du eta badirudi Nafarroako Gobernutik dirulaguntza izanen dela horretarako. Diru partida batzuk aurten bertan sartuko omen dira.

Honekin lotuta, 'Nafarroako Aretzea' Jatorrizko izendapena edo denominazioaren barnean 'Baztango aretzea' ere bultzatu nahi da, baina hau luzeagoa joanen da.



Ordoki auzoko industrialdeko azpiegitura lanak, urbanizazioa eta ura sartzea bertez bertez, bultzatuko ditu udalak Arg.: ARTXIBOA

Iñauteriak

Iruritako erreka-ko iñauteriak Perkebordan ospatu zituzten. Gazte koadrilak, soinularien laguntzaz bordaz borda ibili ondok, Perkebordan biltzen dira otorduak egitera. Garai batean Iruritako herrira ere etortzen ziren baina orain errekan gelditzen dira.

Herri batzuetan dagoeneko Egun-ttuntun, Oilar dantza edo Orakunde bezala ezagututako eguna prestatzen ari dira. Iñauteriak beranduago etorriko dira.

Baztandarren emigrazioari buruzko ikerketa burutuko da

XX. mendeko emigrazioari buruzko ikerketa bultzatuko du Baztango udalak, "gizarte eta kultur mailan, Baztango gaur eguneko historiaren gertakari garrantzitsuenetako bat" delakoan.

Honela, 200.000 pezetako dirulaguntza eman zaio Alberto Aldai historialariari, 'Baztandarren emigrazioa Ameriketara' gaiari buruzko emandako eta emanen dituen hitzaldiengatik.

Honetaz gain, dirulaguntzaren truke Aldaik ikerketaren zati bat udalari eskeiniko dio, argitaratzeko asmoz. Hau, Braulio Iriarte, Mexicon bizi izan zen enpresa gizon baztandarraren biografia izaten ahal da, udalaren asmoen arabera.

Eraberean, Baztango liburutegi edo artxiborako dossier bat emanen luke Alberto Aldaik, beti ere berak tesia aurkeztu ondoren argitaratzekotan.

ttipi-flash

San Antoneko errifa

Lekarozko Perueña etxeke Miguel Arrupeak irabazi zuen lehendabiziko saria (esne-behi bat). 2.810 zenbakia izan zen saritua.

Baztandarren Biltzarreko

Gazteri sailak antolatutako hitzaldiek arrakasta handia izan dute, batez ere HIESari buruzkoak.

Mugarik Gabe

erakundeak 'Konsumismoa eta hirugarren munduko egoera'ri buruzko hitzaldi-tailerra burutu zuen. Herrialde aberatsak pobreekiko dugun harremana eta ekar ditzakeen ondorioetat ere aritu ziren.

Amaiurko

eskolako teilatua moldatzeko eta aldatzeko 456.909 pezetako dirulaguntza jaso du udalak.

Belagiak

hobetzeko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren erdia jaso du udalak. Zehazki, Eriz-Okoro inguruko lur komunaletarako 3.472.429 pezetako dirulaguntza eman da eta Lekarozko belagi komunaletarako ia 6 milioi pezeta.

**Eskisaroi
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO



**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

Baztan

Iñaute giroa Basaburuan asteburu honetan

Almandoz, Aniz eta Berroetan ortzileritik igandera ospatuko dituzte



Etxe etxe eskean ibiltzerakoan ederki eskertzen da kafea edo pattar pixko bat eskeintzea

Argazkia: Artxiboa

Baztango liburutegia kategoriaz aldatu dute

'Bianako Printzea' erakundeak kategoria aldaketa eman dio Baztango liburutegia-ri. Orain arte udal liburutegia zen eta orain

liburutegi publikoa izanen da. Orain, egun osoko lanaldia izanen du (orain arte astean 30 orduz zabaltzen zen). Udalak, katego-

ria aldaketa kontutan hartzea eskatu dio Liburutegi Sareari, Sonia Lopez liburu-zainaren eskariarekin bat eginez.

ttipi-flash

- ❖ **Almandozko** eskola eta mediku kontsulta Rakel Iruuetak garbituko ditu. Berea izan zen eskeintzarik onena, orduko 400 pezetakoa.
- ❖ **Iruritako** antzerki taldeak Antonio Pasoren "Y me dejás solo" antzeslana eskeinitu du Elizondoko Kasinoan.
- ❖ **Mus txapelketa** hasi da Anizen. Asteburuetan jotkatzen da, Aniz, Berroeta eta Zigako jendeak parte hartzen duelarik.
- ❖ **Ingurugiro** departamentuaren eskutik eta Baztango udalaren oneritziarekin, bi haize negurgailu jarriko dira Belateko Azkenatz eta Iturriotzko parajetan. Tresnok, haizearen indarra kontrolatzeko jarriko dituzte.

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

GAZTELU ITURGINTZA KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA



JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza >

ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25

ARROPA DENDA

MERCERIA

FANTXIKE

JAIME URRUTIA, 29
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

SARA

Ihiztariek zazpi basurde bota dituzte Sarako eremuetan

Otsailaren 19an Euskal Kultur Erakundeak eta Olhain ikastolak antolatutako bertso saioa izanen da

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako basurde ihiztarien azken balentria urtarrilaren 7an gertatu zen Larrungo mazelan (Uhaideko errekan) hiru basurde botatzen zituztelarik. Egia erran, azken urte hauetan basurdea azkar dabil. Sasoin huntan 7 bota dituzte beratarren zakurrei esker. Orain ihizia hetsia dela eta, ihiztariek badute afari batzuetan elgarretartzeko parada. Jadanik urtarrilaren 14an Animaineko rugby zelaieko biltokian 45 bat lagun biltzen ziren basurde jate batean. Hurrengo afaria laster egitekoa dute eta salatu daukute laborariak gonbidatzen dituztela beren lurren uzteaz eskertzeko.



Urtarrilaren 7an hiru basurde bota zituzten Larrungo mazelan

Arg.: J.P. AMORENA

Bertso saioa otsailaren 19an ospatuko da

Bertso saio hunen antolakuntza Euskal Kultur Erakundeak eta Olhain ikastolari doakio. Oren batean ber-

sozaleak Omordiako janlekuan bazkari herriko eta alai baten inguruan bilduko dira. Saioa arratsaldeko

4etan hasiko da Omordiako salan. Hor entzuten ahalko dira: Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Xanpun, Ezponda eta Bittor Elizagoien. Gai emai-

Mus lehiaketa Herriko Etxeko edantegian

Urtero antolatzen den mus lehiaketa hau otsailaren 10ean, 9ak t'erdietan hasiko da eta hilabete bat inguru iraunen du. Aurtengo txapelkunek eta Euskal Herriko txapelketan ari den edantegiko bikote hoberenarekin batera asteburu bat pasatuko dute Andorran, sari bezala.

lea Michel Itzaina izanen da.

Egun hau aurkezten duen afixa Jean Igos Donibandarrari zor diogu. Holako lan ederrak azpimarratzea merexi du.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-ren banatzaile
baimendua*



HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiaian

Tfnos: 59 54 25 19
64130 SARA



Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziarik, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako
PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herriko eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa
konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

Urdazubi

San Anton eguna meza eta bazkariarekin ospatu da

Nekazariak Beotxea eta Indiano-baita jatetxeetan elkartu ziren

ALIZIA OLAIZOLA

Ainhoan Ur-hegiako frontoian esku pilota entrenamenduak izaten dira haurrentzat eta hemendik bada mutiko talde bat joaten dena. Iparraldeko benjamin mailako pilota txapelketetan parte hartzen dute eta aldika txapeldun ere gelditu dira. Ttikienak astearte arratsaldetan joaten dira entrenamenduetarat eta haundia-goak eta larunbat arratsaldetan.

XI. mus txapelketa

Urtarrilaren 21ean, larunbat arratsakin, ha-



Haur hauek eta bertze batzuk gehiago dira esku pilotan ari direnak. Hauek herriko bestetan jokatu zuten joan den urtean

si zen Indiano-baitako XI. mus txapelketa, bikote andana batek parte hartuz hiru kategoritan banatuta.

Lau jaiotza

94eko errebasoan aipatu zen jaiotzetan hiru izan zirela, baina lau izan dira. Aben-

duaren 27an Jone Arzoz Gamio jaio zen.

Heriotza

Aurtengo lehendabizikoa izan da. Ugal-

deko Juli Malda urtarrilaren 25ean hil zen, 67 urterekin. Juli den-dari aipatua zen inguru hauean.

Zugarramurdi

Akelarre elkarteak antolatutako bertso afaria arrakastatsua

Hirutan hogeit bat lagun bildu ziren Herriko Etxeko jatetxean

KORO ETA MARGARI

Akelarre elkarteak antolatutako bertso afariak sekulako arrakasta izan zuen. Herriko Etxeko jatetxean 60 bat lagun bildu ziren Mañukorta, Zeberio eta Euskitzeri aditzeko. Ondotik, eta gaua pittat luzatu nahian, akordiolari batekin dantzaldia muntatu zen eta bertsolariak dantzan ere daki-tela erakutsi zuten.



Urtea agurtzeko egun borobila izan zuten eskolan

Urte bukaera eskolan

Aspaldixko gertatu bazen, aipatu beharra da eskoletan egin zen besta ederra. 8. mailakoek 'La donna e mobile' kantatu zuten. Gero maila guztietako haurrek beren antzerki saioak eskeini zituzten. Ondotik, frantsesez gabonetako kantak izan ziren. Eta arratsalde kalejira akordionarekin eta 'Atxuri beltza' dantza eskeini zuten, haundiek 'El Candril' dantzatu.

EZKONTZAK

JAIOTZAK

HERIOTZAK

Naiara Aizpuru Sagaseta, Donamariakoa, urtarrilaren 20an.

Ana Mindegia Iribarren, Doneztebekoa, urtarrilaren 14an.

Ander Arregi Arretxea, Doneztebekoa, urtarrilaren 17an.

Beñat Arregi Arretxea, Doneztebekoa, urtarrilaren 17an.

Ainara Etxabide Sagarzazu, Lesakakoa, urtarrilaren 8an.

Alaitz Aguilar Lazkanotegi, Berakoa, urtarrilaren 7an.

Juan Luis Sagastibeltza Zabaleta, Leitzakoa, urtarrilaren 18an, 86 urte.

Isabel Lorea Illentxeta, Elizondon, urtarrilare 7an, 86 urte.

Frantxa Pradere Ithuria, Sarakoa, urtarrilaren 22an, 85 urte.

M^o Bautista Aranibar Diaz, Berakoa, urtarrilaren 21ean, 88 urte.

Ana Mari Gorria Arburua, Berakoa, urtarrilaren 22an, 45 urte.

Luis Urroz Juanco, Beintza-Labaien-
goa, urtarrilaren 21ean, 20 urte.

Julia Malda Irigoien, Urdazubikoa, urtarrilaren 25ean, 67 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak,
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak088/061

Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450342

DYA

Lesaka (Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe (Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Orono-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberduero 450335 / 450336

Belaten argia duten panelak paratuko dituzte

Nafarroako Gobernuak argia duten panelak paratuko ditu Belateko tunelaren jeitsieraren hasieran dagoen kurban (33. km). Aurrekontua 1.788.544 pezetakoa da eta panelak eguzkiaren argiaren bitartez hornituko dira. Energia sortzeko eguzki izpien % 5a iristearekin nahikoa dute panel hauek.

Panel hauekin gidariei abiaduran egin behar den aldaketaren berri ematen zaie.

PARTZUERGOAREN IBILBIDE BERRIAK

Bertziko Turismo Partzuergoak argitaratu berria du, 'Bailara Lasaiako' hamabi ibilbide ezberdinez osatutako bilduma berria.

Kultur edo paisai aldetik interesgarri diren lekuetara hurbiltzen gaituzten 15 eta 20 kilometro arteko ibilbide hauek oinez eta bizikletaz egin daitezke. Ibilbide hauek, iaz argitaratutakoekin batera, Bertziko Partzuergo goko 24 ibilbide laburrak Ibilbide-bilduma osatzen da. Bakoitzak 350 pezeta balio du.



Sagardoa txotxetik Lesaka eta Lekarozko sagardotegietan ere

Gipuzkoaldean gertatu bezala, eskualdeko sagardotegietan ere zabaldu dituzte kupe-lak, horrela, sagardotegiko giroa gustoko dutenei sagardoa txotxetik edateko aukera emanez.

Lekarozko Larralde sagardotegian urtarilaren erdian ideki zitu-tzen kupelak, eurek egindako sagardoz bertako kupelak gainera. Bertako produktuak bultzatzeko apostua

egina dute Larraldean eta ohizko intxaurrekin batera, postrerako Baztango gasnak jateko aukera ematen dute. Sagardoa egiterakoan, berez Baztangoak diren sagar klaseak erabiltzen dituzte Lekarozko sagardotegi honetan.

Lesakako Koxkonta jatetxe-sagardotegian, bertalalde, urtarilaren 20an zabaldu zituzten kupelak eta maiatza edo ekaina bi-

tarte zabalik edukitze-ko asmoa dute. Izan ere, egurrezko kupelaren baretik doaien ur hotzeko mekanismo bati esker, sagardoa frexko mantentzeko aukera baitute Koxkontakoek. Hauek ez dute bertan sagardorik egiten eta Urrietako sagardotegi batetik ekartzen dute edaria urtero.

Astiggarragan bertze ez, baina eskualdean ere badugu sagardotegietara joateko modua.

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Betatik aitzinerat Larumbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

koxkonta



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle

☎ 63 11 88

DATUAK.....

❖ Luis Mari Retegi duela 44 urte sortu zen Igantzin. Orain Beran bizi da.

❖ Hemeretzi urtez pilotari profesionala izan da, Retegi III, duela bi urte utzi zuen arte.

❖ Afizionatu mailan eskuz banaka Nafarroa (73an) eta Espainiako (72an) txapeldun izan zen. Binaka munduko txapeldun izan zen 74an Uruguayan, Errioxako Del Pozorekin batera.

❖ Gure Txokoa elkarteko pilota delegatua da eta Berako pilota eskolako irakaslea da, Pikabea eta Arretxeakin batera.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
OSKAR TXOPERENA


Luis Mari RETEGI:

«Club arteko txapelketa ona da pilotariak herrietan ikusteko»

Hasi berria da Nafarroako pilota federazioak antolatutako club arteko pilota txapelketa. Bertan, eskuz banaka eta binaka aritzen dira jubencil, sub-21 eta senior mailan. Kategoria nagusian, larruzko paleta eta pala motzean ere ari dira. Lehen aldiz antolatu den txapelketa hau mesedegarria izaten ahal da, Luis Mari Retegiren ustez. «Orain arte Nafarroako txapelketako partidu guztiak Iruñako Labritean jokatzeko ziren. Aurten, joan eta etorriko partiduak jokatzeko direnez herrietan ere izanen da pilotariak ikusteko aukera».

Antolakuntza akatsak

Halere, zenbait akats ere baditu txapelketa honek. Retegiren erranetan dena kolpean antolatu da eta zenbait xehetasun ez dira argitu oraindik. «Juezak tituluak behar dute izan eta hemen ez dugu horrelakorik, hori sobera da. Momentuz elkarteko ordaindu behar diegu, nahiz eta federazioak errana duen ondotik ordainduko dutela. Ez dakit... Gainera, pilotari aunitz apuntatu dira eta as-



tetartez, jokatu behar izaten dira partidoak, batzutan kilometro aunitz egin behar izaten dira eta oraindik ez dago garbi nork ordainduko duen. Nere ustez lasaixeago antolatu behar zen hau». «Pilotak ere, -segitzen du

Retegik- elkarte bakoitzak bereak izaten ditu. Badira horrelako detaileak». Halere, dena «pixkan-pixkan» moldatuko dela uste du.

Faboritoei dagokienez, seniorretan eskuz banaka Apezetxea goizuetarra ikusten du txapeldun garbi bezala. Gainerako kategoriatan ez du faborito argirik ikusten.

Interpueblos

Bertze txapelketetan ere parte hartuko

dute Berako pilotariak, Interpueblos edo herri arteko txapelketan bezala. Kritikoa da Luis Mari txapelketa honekin: «Interpueblos txapelketa deskafinatua dago. Herri guztietan, Goizueta kenduz gero, kanpoko jendea hartzen dute Gu arantzarrarekin ari gara. Hori gaizki iduritzen zait, Interpueblos baldin bada herriko jendeak parte hartu behar du».

Antton eta Martin Ibarrek irabazi zuten Iruritako pala motzeko txapelketa

Aranabia elkarteak bigarren urtez antolatzen zuen txapelketa honetako finalistak Zozaia eta Telletxea lesakarrak izan ziren

Martin eta Antton Ibarrek osatutalo bikotea nagusitu da Iruritako Aranabia elkarteak bigarren urtez antolatutako pala motzeko txapelketan.

Urtarrilaren 15eko egitaraua, bederatzi eta hamabi urte arteko multikoe egindako jokogarbi erakusketarekin hasi zen. Ondotik, hirugarren eta laugarren posturako partidua jokatu zen. Partidu ikusgarri batean, Zalba eta Alkfarok 40-35 irabazi zieten Osakar II eta Huarteri.

Finalean, Martin eta Antxon Ibarra, Zozaia eta Telletxea baino gehiago direla erakutsi zuten eta 40-23 irabazi zuten. Irabazleak segurtasunean oinarritu ziren eta kontrarioen hutsak itxaron zituzten.



Ibarratarrek irabazi zuten txapela finalean 40-23 irabazi ondotik

Argazkia: ONDIKOL

Euskadiko sokatira txapelketaren kanporaketa Elizondon larunbat honetan

Larunbat honetan (otsailak 4) arratsaldeko 5etatik aitzinera burutuko da Elizondoko frontoian Euskadiko sokatira txapelketaren kanporaketa bat, 600

kilotik behitiko kategorian. Partehartzaileak bi taldeetan banatu dira. Batean Amaiur, Arzeniaga, Auzolan, Larraun, Harrikozubi, Barrundia eta Torreko-

landa B arituko dira. Bigarrenean berriz, Torrekolanda A, Abadiño, Haitzazpe, Badaioz, Mutriku, Gaztedi eta Auzolan-Igeldok tiratuko dute.

Pilota emaitzak

Burlatoko txapelketa

Eskuz, alebinetan:

Aranibar-Zubieta (Berakoak), 18; Huarte Arakilgo bikoteak, 6.

Eskuz, kadetetan:

Agesta-Errandonea (Arantzakoak), 18; Irurtzungo bikoteak, 15.

Lehendabiziko partiduan errex nagusitu ziren beratarrak eta bigarrenean, arantzatarak 2-12 galtzen joan ondotik partidua altxatu zuten.

Club artek txapelketa

Eskuz, jubenetan:

Saragueta (Gure Txokoa), 12; Borda (Huarte-Iruña), 18.

Eskuz, seniorretan:

Errandonea (Gure Txokoa), 14, Zabalza (Oberena), 18.

Ez zuten suerterik izan beratarrak.

'Ezkurra Memoriala' txapelketa martxan Txaruta elkartearen eskutik

Joan den astean hasi zen "Ezkurra Memoriala" pilota txapelketa. Datorren martxoa bitarte iraungo duen txapelketa hau sei mailatan banatu da: prebenjamin, benjamin, alebin, infantil, jubeni eta heldu edo beteranoetan.

Txaruta elkarteak

Txapelketa hau, Baztan-Malerrekako Txaruta elkarteak antolatuko du. 1993ko urrian, Baztan eta Malerrekako Mendaurren pilota es-

kolak bat egitean sortu zen Txaruta elkarteak. Euskadiko txapelketan aritzea eta elkarrekin arazoei aterabide egokia bilatzea, Zuzendari Batzordea haundiatzeko, izan ziren bat egitearen arrazoiak. Aurtengo Euskadiko txapelketan, kadete mailan 6 pilotari ari dira, jubenetan 4, juniorretan 3, seniorretan 3 eta palan berriz hiru pilotarik jokatzen dute Euskalerrian barna, txandatu bitastetik behin Iruritan

aritzen direlarik.

Dirulaguntzei dagokionez, Doneztebeko udala eta eskualdeko kirol koordinadorengandik hartzen dute kopuru haundiena eta Euskadiko ligatik gasitu batzuk ordaintzeko. Malerrekak, Martin Begino, Patxi Ordoki eta Jesus Mangado dira gehien bat elkartearen ardura dutenak. Beraien ustez, une honetan elkarte egoera onean aurkitzen da eta egiten den lana emaitzak ematen hasi da.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Maika Ariztegi

Iturengo laisterkalaria.

Aitzineko alean elkarriketatuta genuen neskek Nafarroako cross txapelketa irabazi berria du. Aipatzekoa da bigarren postuan sailkatu zenari ia minutu bateko aldea atera zioela.

Segi horrela, neska!

Interpueblos

txapelketa.

Egitan herri arteko txapelketa bada, herri bakoitzeko pilotariekin parte hartu beharko luke, ondoko herrietako pilotariei gutxietsi gabe. Goizuetako taldean badago ispiluederra.

AGENDA EGUNEZ EGUN

DIAPOSITIBAK

DONEZTEBE

► Otsailaren 3an

Malerrekako Euskaltegian arratsaldeko 6etan K2 mendira egindako espedioari buruzko diapositibak agertu dira. Ondotik, berendua.

BERTSOAK

SARA

► Otsailaren 19an.

Arratsaldeko 4etan, Omordiako salan Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Xanpun, Ezponda eta Bittor Elizagoinen. Gai-emailea: Michel Itzaina. Antolatzailea: Olhain ikastola eta EKE.

INAUTERIAK

ARANTZA

► Otsailaren 9tik

12ra. Xehetasunak 13. orrialdean.

BASABURUA

► Otsailaren 3tik

5era. Almandoz, Berroeta eta Anizko inauteriak.

EUSKARA

BORTZIRIAK

Euskara ikasi edo hobetu nahi duenak matrikula epea zabalik du otsailaren 11a bitarte. Informazio gehiago Bortzirietako IKA euskaltegian edo 637796 telefonoan.

AGENDA PRAKTIKOA



Basurdea gisadoan

Osagaiak

• Basurde haragia 2 kilo • Piper txofizero bat • Bi tomate • Bi azenario • olio • baratzuria • tipula • ardo txuria • kilo bat patata •

Prestatzeko manera

Basurdearen haragiari grasa edo koipe guztia kendu behar zaio ahal bezain ongi, lehendabiziko eskuz eta gero ur irakinean pasatuta. Eltze batean olio eta baratzuria jarri eta haragia bota. Gorritzen denean, ardo txuria eta gainerako barazki guztiak



Mari Carmen AZPIROZ
Goiz-Argi
•GOIZUETA•

bota. Ordu terdian egosten eduki ondoren, patata batzuk sartu eta beste hogei bat minutu eduki egiten. Bero-beroan serbitu behar da. On egin!



❖ ZERRIKIA ❖

• Zerrikumea (20 kilokoa): 7.200 pzta.
• Zerri gizena (95-100): 178 pzta./kilo
• Zerramak: 115 -125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• Aretze gizenak:
• Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 590
1.koa 570
2.koa 550

• Urruxak: Pzta./kg. Kanal
Extra 610
1.koa 590
2.koa 560
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

• Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruzak 22.000 eta idixkoak 36.000 Pzta.
Mestizoak: urruzak 40.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 430 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• Bertako sagarrondoa 950.
• Udareondoa 950 pzta.
• Gereziondoa 1.050 pzta.
• Aranondoa 1.050 pzta.
• Muxika 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

• Pipertxorizero zientoa 800.
• Piper morro zientoa 800.
• Piperminak zientoa 600.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)

Faxa: 948-581274

ARKO (Arrasate Press eta Arrasate Telebista)-k Erredakzio-Buru lanpostua bete behar du:


• Kazetaritza eta herri-komunikabideetan esperientzia.
• Euskara maila ona.
• Gidatzeko karneta.
Baloratuko dena:
• Arrasate ezagutzea.
• Harremanetarako gaitasuna.
Lanpostuaren betebeharrak:
• Arrasate Press-eko zuzendaritza eta ARKOko medioen erredakzio-buru.
Kurrikulum-ak:
Epea: otsailaren 15a.
Helbidea: Azoka kalea, 1 - 20500 ARRASATE
Tfnoa: (943) 77 08 15

Zineak 100 urte bete ditu

1895eko abenduaren 28an, Pariseko 'Grand Cafe' niku- si ziren lehen aldiz irudiak mugimenduan. Lumière anaiek, zinematografoa in- bentatu zutenek alegia, ez zuten arrakasta haundiegir- ik espero. Lehen emanal- dirako Eguberri egunak au- keratu bazituzten ere, ez zen jende aunitz hurbildu -35 libera bildu zituzten-. Sala ilunean eszeptizismoa su- matzen zen. Bainan argi iz- pi bat saloiaren paretaren kontra jo eta hasi zen mi- raria. Begiak zabal-zabalik eta mugitzeko beldurrez- zeuden ikusleen aitzinean Lyongo plaza bat ageri zen, karroak eta jendea mugituz gainera. Jendea harritua ate- ri zen salatik eta aunitz eza- gun guztiekin bueltatzen zi- ren. Arrakasta lortua zuten. Handik bi astetara 2.500 li- bera biltzen zituzten egu- nero Lumière anaiek.

ZINEAREN SORRERA

Garaian kokatu gabe, ezin daiteke erran zerk eragiten zuen honelako sorpresa ikusleengan. Hasierako pe- likulak 17 metro bakarrik zuten eta kamara finko ba- tek bildutako eguneroko iru- diak bertzerik ez ziren. Montajea ez zen oraindik



Lumiere anaien 'Trenaren etorrera' pelikula ikustean tren beraien gainera zetorrela uste zuten ikusleek

ezagutzen. 'Langileen irte- era Lumière anaien lante- gitik', 'Belar txarrak kent- zen' edo 'Itsasoa' ziren ha- sierako tituluak, baina arra- kasta gehien lortu zuena 'Trenaren etorrera' izan zen. Lokomotora gainera zetorrela uste zuten ikara- tutako ikusleek. Laister ha- siko dira lehen pelikula ko- mikoak egiten (*L'arroseur arrosé* edo *Bustitako lora- zaina*), baina Lumière anaiek ez zioten etorkizun komertzialik ikusten be- raien inbentari eta ikerke- tazientifikorako erabili nahi zuten. Hori bai, mundu gu- zian zehar erreportaiak egi- tera bidali zituzten beraien langileak.

LEHEN EFEKTOAK

Lehen proiektzioen ondotik hasi ziren lehen zinemagi-

leak sortzen. Georges Méliès-ek trukajea asmatu zuen kasualitatez, inglese- k montajea... Edwin S. Porter-ek Europako hasie- rako zinearen ezaugarriak bildu eta bakeroen lehen pelikula egin zuen: 'Trenaren asaltua eta ebas- keta'. Lehen aldiz, bi akzio paralelo ageri dira peliku- la batean.

Gaur egungo zinetik urrun gaude oraindik, baina be- rrikuntzak sartzen ari dira poliki-poliki. Bukaera zo- riontsuak, soinua, Holly- wood edo kolorea mende honetan agertuko dira. Zinea zazpigarren artea bi- lakatuko da.

ROMAN GUBERN

('HISTORIA DEL CINE' LIBURUTIK HARTUA)

ZINEA

DONEZTEBE

► **Otsailak 4-5.** 'Sin- escape'.

► **Otsailak 11-12.** 'Made in America'.

LEITZA

► **Otsailak 3-5.** 'La estrategia del cara- col'.

► **Otsailak 5.** 'Cheque en blanco'.

► **Otsailak 10-12.** 'Alargunaren gailurra' (Euskaraz).

► **Otsailak 12** 'El chip prodigioso'.

► **Otsailak 17.19.** 'El especialista'.

► **Otsailak 19.** 'Las aventuras de Huel'.

HITZALDIAK

LESAKA

► **Otsailak 16an.**

Aratseko 7etan Andoni EGANA ber- tsolaritaz solasean arituko da Matxin- beltzenean. Ondotik, bere diska berria aur- kezuko du.

'Neguko beroa, kultur giroa' izeneko zikloa- ren barnean.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urtarrilaren 30tik Otsailaren 5era**

Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Otsailaren 6tik 12ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Otsailaren 13tik 19ra** Bera, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 Ora

ETXEBIZITZAK

DONEZTEBE. Pisubat erotsiko nuke. ☎ 450326.

IRURITA. Etxe bat salgai, terrenoarekin. ☎ 580288.

NARBARTE. Pisua salgai bajera eta baratzearekin. ☎ 635219 (arratsetan).

NARBARTE. Pisua eta bajera salgai. ☎ 585018 (arratsaldeko 7,30etatik goiti).

LESAKA. Baserria salgai, 60.000 m² terrenoarekin. Terrenorik gabe ere saltzen da. ☎ 637008.

Baserri baten bila gabiltza alokatzeko. ☎ 393067.

DENETARIK

Kartelak, afitxak, Bisita txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

Ontzigarbigailu edo "lavavajillas" gutxi erabilia, merke saltzen da. ☎ 510012.

Argazki kamarako 70-200 zooma eta duplikadora, biak Tanrom markakoak salgai.

☎ 637034.

30 m²ko bajera alokatzeko dago Lesakako Bittiria karrikan. ☎ 637034.

Ordenadorea salgai. ☎ 615040.

Errege egunean, urrezko aliantza topatu nuen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. ☎ 630595 (gauez).

Telebista koloretako Thomson 22 pulgadako, urruneko mandoa eta telestuduna salgai. ☎ 580539.

Intxaur landareak salgai. ☎ 510227.

Haritz amerikano eta gaztain plantak salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

Zure osasunerako ezin hobeki lekurik **estudio bat** salgai. Hondartza eta gatzarte artean. ☎ 631339.

Megadrive eta Megafever **bideo-kontsolak 45.000 pezetatan** salgai, 7 jokorekin. ☎ 510180.

Akumuladoreak salgai, 2.500 Kwkoak, bi Aegon markakoak. Modu onean.

☎ 610904.

Hiru mendi bizikleta salgai. Berri berriak, zozketa batean tokatuak. Prezio ezin hobean. ☎ 627514.

Esne tankea 200 litrokoa salgai. ☎ 450807 (eguerditan eta-gauez).

AZIENDAK

Ardi zakurrak salgai. Borondatea eskertzen da. ☎ 634074 (Xalbador-Arantza).

Zakurkume grifona, bi hilabete terdikoa salgai. ☎ 637040 (arratseko 8,30etatik 9etara).

Collie arrazako zakurkume beltzak salgai. ☎ 451500.

Sei txakur erregalatzeko ditut (artzaiz zakur eta ehizako zakurraren arteko kruzua). ☎ 393067.

7 urteko behor mantsoa salgai. Karroan nahiz azpian ibiltzen dakiena. ☎ 634098 (Arantza).

Bi ahariko, urte betekoak salgai. Mutur gorriak dira. ☎ 451696.

IBILGAILUAK

Moto bat salgai, Aprilia AF1125 Futura markakoa. Egoera ezin hobean. ☎ 452292.

R-18 gasoilezkoa saldu nahi nuke. 250.000 Pta. ☎ 510167.

LANA

Kartelak, afitxak, Bisita txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

AGURRAK

Igantzioko Begi Orlegientzat: "Nora gau ilun zero beltzera, nora zure logale arnasa..." Kontuz non sartzen zaren.

Igantzioko Tapiari: Esperodut karta gustatu zaizula. Zure txori maitea.

Berako M^a Jose Ricori: Oso polita zara eta maite-minduta nauzu. Zure institutuko mutil baten partez.

Narbarteko Robertori: zorionak zure urtebetetzean

(urtarrilak 28). Narbarteko I.P. ren partez.

Urdazubiko Itziar Galarregiri otsailaren 3an partez zorionak eta egubon bat pasa dezazu eta kontu txanpain pittagurutzat. Zure lagunak.

Igantzioko J.A.E. rentzat: zura dudarik gabe Baztan-Bidasoako mutilik politena. Zureak dira, zureak, 20 urte zoragarriak. Nere ametsa zu ezagutzea da, baina ez naiz ausartzen zuregana hurbiltzea. Malerreka neska baten partez.

Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

P.A.C.

Laguntza
*Eskera*k
Azalerak 1995



Nekazariak
Abeltzainak



95 Urtea

Eska itzazu
gure bulegoen
bitartez

Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan

GANI

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

Giltzaren bila

 CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA -ren

l e h i a k e t a

Hurrengo **lau hilabeteotan**, otsaila, martxoa, apirila eta maiatzean, **bi lagunendako 8 otordu (15.000 pezetako afari edo bazkaria) zozketatuko dira** EUSKADIKO KUTXAREN **giltza aurkitu dutenen artean**.

Giltza edonon egon daiteke: testuan, argazkietan, publizitatean... bilatu egin behar da. Hori bai, EUSKADIKO KUTXAK ateratzen duen publizitateko giltza ez da kontutan hartuko **bilatu** behar den giltza lekutzeko orduan.

Aldizkarian kupoi bat aurkituko duzu **giltza** non dagoen adierazteko, zein lekutan, zein orrialdetan...

Kupoia moztu eta EUSKADIKO KUTXAK Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakan dituen **sukurtsaletan utzi** beharko duzu zozketan parte hartu nahi baduzu.

Hilabetero bi lagunendako bi otordu (bat Bera-Lesaka aldean eta bestea Baztan-Donostia-Leitzaldean) zozketatuko dira ongi bete diren kupoi guztien artean.

Anima zaitetz parte hartzera!!



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA